

GAKO EKONOMIKOAK

- Covid19ak sortutako pandemiari eusteko beharrezkoak diren isolatze neurriek atzeraldi bat eragingo dute epe laburrean.
- Zalantza betetako ingurune honetan, bursak zuzenketa bizkorak eta sendoak bizi izan ditu.
- Fed-aren ekintzek amerikar tasak minimo historikoetara eraman ditu. BCEak, aldiz, herrialde periferikoen arrisku primak eta bonuen errentagarritasuna areagotzea mugatzea lortu du, aktiboen erosketa programa berrien bitartez.
- Enpresen bonuek inpaktu gogorra jasan dute, kredituen kalitate baxuenekoak bereziki.
- Brent upelaren prezioa % 57 erori da hilabete honetan, eta dolarrek babes aktibo balioa galdu du.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Urte askotan ahaztu ezingo dugun martxoak bukatu da. Koronabirusaren agerraldiak erabat aldatu du agertoki ekonomikoa, eta osasun arloan eragin suntsigarriak izateaz gain, ekonomian eta merkatuetan ere ondorio ikaragarriak izan ditu. Txinan agertutako birusaren hedapen azkarrak eta mundu osoan gobernuak kutsadurari eusteko hartzen joan diren murrizketa neurriek inbertitzaileen sentimenduan eragin okerra izan dute eta, ondorioz, ekonomian ere, zeina atzerapenean sartuko den epe laburrean. Urteak daramatzaguz ekonomiaren hazkuntza desoreka zezaketen faktoreak aztertzen eta sarri ohartarazi gaituzte beste atzerapen bat zetorrela. Azkenean guztiz exogenoa den faktore batek eragin du, zisne beltz deritzenetako bat. Ingurune horretan, pandemiaren azken efektuen inguruan zalantza ugari dago, eta petrolioaren prezioak % 60 jaitsi direla gehitzen badiogu, aktibo arriskutsuen erorikoa uler dezakegu, zeinak, haien bizkortasunarengatik eta, hein txikiagoan, haren sakonerarengatik, berria da historian. Beste krisialdi batzuetan ez bezala, agintariak azkar eta modu erabakigarrian ari dira lanean. Jakina, aldian behin akatsen bat eginez, baina 2008ko atzeraldi handian, adibidez, ikasi zutela agerian ari dira uzten. Banku Zentralak erabat ari dira laguntzen mundu mailan. Erreserba Federalak tasak historiako minimoetara eraman ditu eta likideziaz bete du merkatua. Europako Banku Zentralak, aldiz, 750.000 milioi eurotan areagotu du zorra erosteko programa eta malgutasun handiagoa eman dio. Zergei dagokienez, estatuek gastua areagotzeko programa gogorak atera dituzte atzeraldi iraunkor baten sorgin-gurpila mozteko, baina faltan botatzen dira neurri hauen koordinazio eta nazioarteko elkartasun handiagoak. Datu makroekonomikoei dagokienez, hilean zehar, konfinamendu neurri zorrotzek eta munduko ekonomia nagusietan jarduerak gelditzeak eragindako kalteen lehenengo datuak eman dira ezagutzera eta baita eragingo dituenak ere. Eurozonan, PMlek murrizketa historikoak izango dituztela dirudi, eta Estatu Batuetan langabezia subsidioren eskaerek ere gora egin dute, eta baita errekorra iritsi ere hilaren azken astean.

ERRENTA ALDAKORRA

Beldurra eta zalantza nagusitu dira merkatuan eta hilaren bukaeran erorikoak moteldu badira ere, burtsen maximoak zonaldean -% 40 inguruko erorikora iritsi dira. Europan, Ibex35aren joera txarra aipatu beharra dago, zeinak % 22,23 galdu duen martxoan, hau da, 28 urteko historian izan duen erregistro txarrena, 1998ko abuztu beltza gaindituz. Europako gainerako Burtza handiek ere eroriko handiak izan dituzte, % 15 ingurukoak gehienetan. Wall Street-en, nahiz eta hegakortasun handia egon den eta egun oso txarrak onekin tartekatuta diren, eta indize amerikarren erresistentzia hobea zirudien, hila % 10etik gorako erorikoekin itxi da. Nasdaq-ek bakarrik lortu ditu galerak % 10etik behera mugatzea (% 8 ingurura). Gorantz doazen merkatuak ere aurretik eraman zituen pandemiak eragindako zalantza betetako egoerak, eta martxoaren bukaeran, guztira, % 15etik gorako erorikoak metatu dituzte. Sektoreka, murrizketa orokorra izan da, baina, jakina, kaltetuenak turismoari lotutakoak izan dira (aerolineak, hotel kateak, tour operadoreak...) eta baita ziklokoak, industrialak, autoak edo energia ere, azkena petrolioaren erorikoak eraginda.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	6.785,40	EUR	%-22,21	%-28,94
EUROSTOXX-50	EUROPA	2.786,90	EUR	%-16,30	%-25,59
S&P-500	AEB	2.584,59	USD	%-12,51	%-20,00
DOW JONES	AEB	21.917,16	USD	%-13,74	%-23,20
NASDAQ 100	AEB	7.813,50	USD	%-7,66	%-10,53
NIKKEI-225	JAPONIA	18.917,01	JPY	%-10,53	%-20,04
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	848,58	USD	%-15,61	%-23,87
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	172,42	EUR	%-13,37	%-19,64

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Errenta Finkoan, Fed-ak burututako tasen beherapen handiak puntu erdi portzentuala baino gehiagoko jaitsierak eragin zituen Amerikako kurba osoan zehar, zeinak minimo historikoak izan zituen. Europan, aldiz, Alemaniaren zorrak hasieran zuen mailatik gora bukatu zuen martxoak. Herrialde periferikoetan, estimulu planak ezagutu ahala, bat-batean areagotu ziren bonuen errentagarritasuna eta arrisku primak, eta BCEk esku hartu behar izan du mugimendu horri erantzuteko. Haren ondoren, 10 urterako espainiar bonua +% 0,676an geratu zen martxoko azken saioan, eta arrisku prima 114 puntutan. Enpresa bonuei dagokienez, aldiz, eragin handia izan du haiengan zalantza betetako aldi honek, are gehiago kreditu kalitate txarrenenekoak.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,35	0,07	0,04
	6 HIL.	-0,28	0,11	0,05
	12 HIL.	-0,16	0,15	0,08
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,69	8,00	-8,80
	5 URTE	-0,65	11,10	-18,00
	10 URTE	-0,47	13,60	-28,60
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,19	23,40	19,60
	5 URTE	0,15	34,60	22,90
	10 URTE	0,68	39,50	20,90

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Dibisen arloan, dolarrek babes balio gisa zuen betekizuna galdu du zalantza betetako une honetan, eta martxoak euroarekiko ia aldaketarik gabe bukatu du. Lehengai dagokienez, petrolioak izan da aktibo kaltetuenetako bat. Aurreikusita zegoen gordinaren eskaeraren jaitsierak eta Saudi Arabiaren eta Errusiaren ekoizpen gerrak aldi berean kaltetuta, Brent upelak % 57,08ko jaitsierarekin itxi du hila, eta upelaren prezioa 21\$ baino apur bat gehiagora utzi du.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg

